

# 104. Haurra



Ilustrazioa eta diseinua: Liébana Goñi Yárnoz

**YARLEKU**  
ANTZERKIA · TEATRO



Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



## 104. HAURRA FITXA DIDAKTIKO BAT

### 1. Aurkezpena

104. haurra umezurztegi batean dago, adoptatzeko zain. Bertan, egoera berean dauden beste neska batzuk bezala, arropa egiten igarotzen ditu egunak. Egun on batean, beste neska bat dator, eta badirudi ez datorrela bat 104 haurrak lanagatik duen ilusioarekin, jakin badakielako umezurztegia bera *makila* bat, bizi eta lan egiten den fabrika bat dela eta aprobetxatu egiten direla haien egoeraz. Harrera-familiak joan eta etorri dabilta, baina inork ez du 104. haurra aukeratzen.

Bere laguna, ordea, haietako batek aukeratzen du, baina neskatxarekin izan duen adiskidetasunak ez dio ihes egiten uzten neskarik gabe. 104. haurra, haurren esplotazioa, nortasunak, elkarrekiko laguntzaren garrantzia eta egoera zailei aurre egiteko sormenaren balioa jorratzen dituen istorioa da.

Obra honetan adiskidetasunak eta amets partekatuak mundu bat sortzeko indarra ematen dute.

### 2. Zein adinentzat da egokia?

Antzezpen hau 5 urtetik goragoko haurrentzat izan da sortua. Adin horretatik aitzina haurrek pentsamendu egozentrikoa gainditu eta bestearen lekuan jartzeko gaitasuna garatzen dute: horretatik, gatazka baten inguruan bi pertsonaiek hartzen dituzten bi prespektibak ikusteak, bi aukera ezberdinekin enpatizatzeo aukera eskaintzen die, gaitasun hori aberastuz. Horretaz gain, haurrak haien sozializazio prozesuan ikasitako estrategietaz baliatzen hasten dira; zailtasunen aurrean erreakzionatzeko moduak, esaterako, ikasi lez aplikatzen dituzte. Zentzu horretan, arazoak ebazteko estrategia ezberdinak daudela ikustea aberasgarria izan daiteke.

Obra honek berdinen arteko harremanak balioesten ditu; faktore honek pisua hartzen du haurren garapen ebolutiboan 6 urtetatik aurrera. Haurrek, haien parekoekin harremanatzean, haien kualitate eta gaitasun propioak aurkitu eta garatzen dituzte, modu honetan haien autokontzeptu eta autoestimua garatuz. Antzezlanak, elkarbizitza oinarri duen ikaskuntza prozesua aintzat hartzen du, eta honela publikoak ezaguna zaien errealitatea islatuta ikusiko dute, antzezlanean haien burua proiektatzeko aukera izanez eta haien esperientziarekin alderatuz.

### **Antzezpena ikusi eta gero egiteko jarduera batzuk**

#### 1. JARDUERA. Talde handian lantzeko galderak

-Zer gertatzen zaie Itsaso eta Ekiri? Non daude? Non daude haien senideak? Ze zailtasun eskaintzen dizkie haien inguruak? Abantailarik eskaintzen al du?

-Zertan laguntzen du Itsaok Eki? Eta Ekik Itsaso?

-Zertan aldatzen dira bi haurrak ikuskizunean zehar? Ze momentutan gertatzen dira aldaketak?

-Munduko zein lekutan gerta liteke obra hau? Zergatik?

## 2. JARDUERA. Etxean bezala

Ikasle bakoitzak paper baten erdian bere izena idazten du eta bere inguruan, modu librean konektatuz, "familian bezala" sentiarazten duten pertsonen izenak. Mapa hori osatu ostean ilustrazio bat marraztu beste orri batean, pertsona horiekin zer bizi duen islatuz. Adibidez: "Iruneren etxean nagoenean, familian bezala sentitzen naiz askaria ematen didalako."

\*Dramatizazio bariantea: ikasle bat antzerki zuzendaria da eta besteak antzezleak. Bere marrazki horietan geratzen dena deskribatu behar du ahalik eta xehetasun handienez eta besteak antzeztu behar dute. Zuzendariak eszena interbenitu dezake oharrak emanez, errealitatearen antza ahalik eta handiena lortzeko.

## 3. JARDUERA. Ikusi makusi

Bikoteka, ikasle batek begiak ixten ditu eta besteak belarrira xuxurlatzen dio nola irudikatzen duen bere familia eta bere burua heldua denean. Ze pertsonak inguratzen duten, familia nolakoa den, zer jango duen, eguneroko errutinak e.a. zehaztu behar ditu. Entzuleak pelikula bat bailitzan irudikatu behar du entzuten ari dena eta hiru galdera egin ahal ditu kontakizunak dirauen bitartean. Gero rolak aldatzen dira.

## 4. JARDUERA. Beste amaiera bat posible da

Talde txikietan, obrarentzat aldaketa bat edota amaiera alternatiboa asmatu. Gero horren dramatizazioa prestatu behar dute. Horretarako pertsonaiak berriak txertatu daitezke, narratzaile bat asmatu, objektuak erabili txotxongiloak bailiran e.a. Talde handiari erakutsi sortutakoa.

## "104. HAURRA" ANTZERKIRA JOAN OSTEAN

1. Gogoratzen al duzu nola sentitu zaren antzezenaren une ezberdinetan? Antzerkiak, beste hainbat helbururen artean, emozioak piztea du xede. Gogora ezazu zer sentitu duzun obran zehar, zer gertatzen zitzaien pertsonaiei momentu horretan eta zergatik sentitu zaren horrela.

Adibidez:

**Noiz?** Ekik Itsasori janaria lapurtu dionean.

**Nola sentitu naiz?** Urduri

**Zergatik?** Ez zaidalako gustatzen ikustea bata besteari gauzak nola kentzen dizkion.

a) Noiz?

Nola sentitu naiz?

Zergatik?

b) Noiz?

Nola sentitu naiz?

Zergatik?

c) Noiz?

Nola sentitu naiz?

Zergatik?

## 2. LAGUNARI ESKUTITZA

Maite duzun lagun bati idatz iezaiozu gutun bat, ziur asko gustatuko zaiola! Eskutitza honelakoa izan behar da: elkarrekin egin zenuten zerbait gogorarazi behar diozu eta elkarrekin egiteko plan bat proposatu. Eskutitza amaitutakoan, eman iezaiozu zure lagunari... Eta plana egin ahal baduzue, primeran!

Adibidez:

*Kaixo Ahmed,*

*Zer moduz? Gogoratzen zara hondartzara joan ginen egunaz? Nik itsas-triku bat zapaldu nuen eta zu korrika joan zinen soroslearen bila. Zelako sustoa hartu nuen! Eskerrak elkarrekin geundela, mila esker niri eskutik hartzeagatik sendatzen ninduten bitartean.*

*Idea bat izan dut: nire etxera gonbidatzen zaitut lotara asteburu batean. Pizza prestatu dezakegu, aitak lagunduko gaitu. Nahi al duzu?*

*Besarkada bat,*

*Leti*